

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure helburua da, enpresa autonomo bat izatea. Hau da, ez izatea beste inolako enpresaren beharrik. Baina, egia da, aplikazioa aurrera emateko hainbat faktore eragina dutela eta hainbat bazkide behar ditugula negozio-eredua optimizatzeko, huts egitearen arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko.

Gure proiektuak lan handia dakarrenez eta gainera, aplikazioa eguneratzeko ahalmena ez dugunez, pertsona baten beharra ikusten dugu aplikazioa eguneratzeko.

Hortaz gain, pertsona bat behar dugu publizitatea emateko aplikazioari, guk gizartean ez baitugu eraginik eta pertsona hauek gabe aplikazioa zabaltzea ezinezkoa egiten baitzaigu. Gainera, hasi berriak diren aplikazio sortzaileekin hitz egingo genuke, beraien aplikazioetan gure aplikazioen iragarkiak ateratzeko eta alderantziz.

Aipagarria da, guk aliantzak gure lehiakide ez diren enprekin egingo genituela, lehiakide diren enpresen beharrik ikusten ez dugulako.

